

# Erromatar garaian emakumeek lan egiten zuten? Lan garrantzitsuak?



**Erantzuna:**

**Cristina Rosillo López**

Sevillako, Pablo Olavide Unibertsitateko irakaslea

Parte hartzen al zuten emakume erromatarrek bizitza ekonomikoan? Bai, maila guztietan. Lekukotasunen arabera, emakumeek jarduera ekonomiko xumeetan parte hartzen zuten.

Adibidez, harakinak eta okinak ziren, eta, era berean, askoz ere garrantzi handiagoko merkataritzan jarduten ziren, anfora hauetan ikus dezakegunez: ardo salerosketan, adreiluen fabrikazioan, portuetan... Alegia, bai, emakumeek Erromako bizitza ekonomikoan parte hartzen zuten, erabat!